



Udal zergetan hobariak:

Zerga mota	Arrazioa	Hobariaren zenbatekoa	Aurkeztu beharreko dokumentuak
 Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ/IBI)	Bizigune programan parte hartzea	%50	Kontratua aurkeztu beharko da
	Familia ugariak	%90 arte, haur kopuruaren eta diru-sarreraren arabera (*)	Eskaera orria, bi gurasoek sinatuta. Eta beste etxebizitzarik ez duela adierazten duen zinpeko aitortzea
	Energia aprobetxamendu sistemak erabiltzea, betiere borondatez egin bada (**)	%30	Eskaera orria sinatuta
 Ibilgailuen gaineko Zerga	Ibilgailu historikoak eta 30 urte baino gehiago dituztenak	%100	Ezaugarri Teknikoen Txartela edo autoaren ezaugarriak frogatzen dituen agiria
	Familia ugariak	%60 arte, haur kopuruaren eta diru-sarreraren arabera (*)	Ibilgailua identifikatuta agertzen den idatzia/eskaera, bi gurasoek sinatuta.
	Elektrikoak	%75	Ezaugarri Teknikoen Txartela
	Hibridoak	%40	Ezaugarri Teknikoen Txartela

* **Familia ugariak:** Familia ugarien hobari zehatza ikusteko jo 2024ko ordenantza fiskaletara. [Ikusi hemen.](#)

** **Energiaren hobaria:** Instalakuntza obratik badator ez da hobaria aplikatuko. Eskaria egin eta hurrengo bost urtetan aplikatuko da hobaria.

Udal tasetan familia ugariarentzat hobariak:

Udalekuetan, udazaintza zerbitzuan, musika udalekuetan, kirol udalekuetan eta Ludoteka zerbitzuan **haur kopuru eta diru-sarreraren arabera hobaria** izango dute familia ugariak. [Ikus taulak hemen.](#)

Ohar garrantzitsuak:

- Hobariak eskuratzeko beharrezkoa da zerga eta tasen ordainketak eguneratuta izatea.
- Zerga berdinen barruan, hobariak ez dira bateragarriak. Adb: ezin dira pilatu familia ugariari dagokion eta energia efizientziari lotutako hobariak.

Zalantzak edukiz gero, joan
udaletxera edo deitu Herritarren
Arreta Zerbitzura

943 86 50 25